

Etxalarko Galbarioa

ALES BENGOETXEA TELLETXEA*

SARRERA¹

Donostiako Koldo Mitxelena kulturuneko funtsetan euskarazko liburu eta eskuizkribu saila dago Julio Urkixok egindako biltze-lanari esker. Eskuizkribu horietarik bat duzue hona ekarri dudan testua, J.U. 9773 signaturarekin han sailkatua dena. Lehenbiziko aldian ikusi nuenean, istanteko piztu zidan interesa, batetik, testua idatzita zegoen euskalkiagatik eta, bertetik, bere luzeragatik. Izan ere, Bidasoaldeko hizkeran idatzitako euskal testu zaharrak ez dira batere ugariak eta dozena orritik goiti dutenak are bakanago dira. Gainera, irakurri ahala, konturatu nintzen testuaren kaligrafia eta estiloa ez zirela biak garai batekoak, hau da, testu zaharrago baten kopia moderno bat zela, eta horrek ikusarazi zidan berexia zela begi aitzinean nuen testua eta merezi zuela sakonago aztertzea. Horixe da, bi hitzetan erranta, testu hau berreskuratzea bulkatu ninduen arrazoia.


Aitzinxeago ikusiko dugunez, iduri du egile batek baino gehiagok eginga dela. Egile horietarik bati dagokio, ordea, testu zatirik handiena, eta zati horretako zenbait ezaugarri oharturik, XVIII. mendearen bigarren erdian idatzia dela erran nezake, zalantza handirik gabe. Izan ere, idazkera edo estilo *mendiburutarrez* idatzia da, hau da, Sebastian Mendiburu idazle oiartzuarraren ezaugarri anitz eta alde guzietakoak ditu: hiztegia, morfologia, sintaxia, estiloa. Mendiburuk idatzia dela erratea ez litzateke, beraz, oker handia, eta horixe da neure iritzia, baina zeharkako segurantzia baita nirea, ez dut borobil-borobil erraten ahal.

* Euskal Filologian lizentziaduna.


¹ Artikulu honen lehenbiziko zirriborroa orain hamar bat urte idatzia da. Bitarte horretan, gauza gehiago ikasi dut Mendiburuz eta Teodoro Arburuaz. Etxalarko idazleari buruz irakur bedi Pello Apezteak *Euskeran* aldizkarian agertu zuen artikulua, egiaz argigarria: “Bi etxalartar Euskaltzaindiaren sorreran: Teodoro Arburua eta Eusebio de Etxalar”, *Euskeran*, 52, 2007-I, 283-290 or.

KOPIA-EGILEA

Testu hau Teodoro Arburua Irisarri apezak kopiatu eta Julio Urkixori bidali zion, noski, XX. mendeko lehen urteetan. Lehenbiziko irudia (Ir1) eta bigarrena (Ir2) konparatuz gero, garbi ikusten ahal da esku berak idatziak direla bi testuak. Lehenbiziko irudian *galbario* honen zati bat ikusten da eta bigarrean, berriz, Arburuak Urkixori bidalitako eskutitz baten zatia ageri da. Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean hiru gutun daude Arburuak Urkixo liburu zaharren zaleari bidali zizkionak, eta gutun horietan Arburuak eskaintzen dizkio Urkixori herrian eskuratu dituen liburu zaharrak. Horrengatik, pentsatzekoa da orain ageri ez den eskutitzen baten eranskin-edo igorriko ziola Arburuak sarri aurkeztuko dugun testua, bere eskuz kopiatua. Pentsatzekoa da, orobat, Etxalarko parrokiako paperetan beharko zuela *galbario* honen jatorrizko testua. Eta han altxatua izanen zen noski, baina Etxalarko Pello Apezetxeak adierazi digunez, gaur egun elizako agiritegian ez dago haren aztarrenik.



Ir1. Etxalarko galbarioaren lehenbiziko orrialdearen erakusgarria

Ir2. Arburuak Urkixori 1906an bidalitako eskutitz baten erakusgarria. Bi testu horien irudiak Koldo Mitxelena liburutegiaren webgunean (www.kmkliburutegia.net) eskura daitezke

Teodoro Arburua 1876an jaio zen Etxalarren. 1900ean apeztu zen eta handik aitzinera Nafarroako zenbait herritan egin zuen apez-lana, baina denbora gehiena Etxalarren aritu zen. Euskaltzale aidurra izan zen eta euskarazko kazetaritzak Nafarroan eman duen izen handietarik bat behar luke, zaharrekiko gure eskerrona behar den tamainakoa balitz. Mokoroari zor diot nik

haren ezagutza, ugari jaso baitzituen tolosar honek Arburuaren erranbideak *Ortik eta Emendik* liburuan. Iruñeko *La Tradición Navarra*-n, Bilboko *Euzkadi*-n eta Donostiako *Argia* asterokoan eta *El Día* egunkarian idatzi zituen Arburuak bere kazetaritza-lan gehienak baina beti izenordeak erabiliz, normalean izenorde bat hedabide bakoitzean, baina ez beti. Gehien erabili zituenak ondoko hauek: Ibantelli (*La Tradición Navarra*-n)² eta Zubieta (*Argia*-n eta *El Día*-n). Bere izenez sinatu zituenak, ordea, hagitx guti dira: “Uso eizkera zar pollit bat”, *Euskal Esnalea*, 1916; “Uts bat”, *Euskal Esnalea*, 1917; “Izkirimiriak”, *Euskal Esnalea*, 1917 eta “Euskara ta yaupariak”, *Euskal Esnalea*, 1920. Badu ipuin bat ere, *Otso zarraren onua*, bizkaieraz agertua eta Jaungoiko-zalek 1924an argitaratua.

TESTU-SORTZAILEAK

Gorago erran bezala, baliteke Sebastian Mendiburu oiartzuarra izatea testuaren lehenbiziko bertsoa idatzi zuena. Ez dakit inoiz inprenta bidez argitaratuko ote zen baina garbi dakidana da ez dela halakorik ageri ez *Jesusen Bihotzaren Devocioa*-n, ez *Jesusen Bihotzaren Congregacioco Reglac*-en, ez *Jesusen amore-nequeei dagozten cembait otoitzgai*-n, ez eta *Euscaldun onaren viciera*-n. Bertzalde, Mendibururen *manierista* zen Jose Antonio Mikelestorena lesakarrak badakar galbario bat bere *Cerura nayduenac ardezaquean*, *vide erraza* liburuan, eta pentsa liteke Etxalarko testu hau ere berak egina zela. Nolanahi ere den, Mikelestorenaren galbarioak eta hemen aurkeztuko denak badiutuzte diferentziak euren artean. Mikelestorenarena hagitzez soilagoa da, estazio bakoitzean paragrafo ttiki bat baino ez dakar eta, bertzalde, estazio bat gehiago du, hamabortz orotara. Beraz, Mikelestorenak, eta ez Mendiburuk, idatzi baldin bazuen Etxalarko galbarioa, ez zen abiatu *Cerura nayduenac* liburuan idatzi zuen testutik, baizik eta hura alde batera utzi eta testua berri-berritik egin zuen.

Gainerako egileaz edo egileez zer erran? Badira testuan Bortzirietako solaskera gogora ekartzen dizkiguten hainbat eta hainbat alderdi. Herriko apezek eginak izanen dira doikabe, jendeak errezoak hobeki uler zitzen. Halere, ukitu eta gehikuntza horiek batek bakarrak ala batek baino gehiagok eginak diren ez dugu jakiten ahal.

Teodoro Arburuak behin³ idatzi zuen galbarioaren jaiarak Etxalarren garai batean izan zuen bizitasunaz:

Gure Gurutze deun jayak ere badoaz.

Len jai aundi zaratatsuak genituen gaur eta Mayatzaren 3an.

Gure gaztetan orañik erriak jai osoa egiten zuen eta aintziñako aldie-tan bi Jubileo berexi emaiten zituen Aita Santuak gure ermitari.

Gurutzeak pillaka etortzen ziren auzo erritik ere ta alderdi otan gaur Lezo den bezalatsu zen gure erria.

Noizbait negarketa gorriren bat gertatu bide zen eta etorri zen peregrinazio debekua ta galdu zen zaletasuna. Erritarrak zirauten ordean go-

² Egunkari horretan agertu zituen testuen bilduma ttiki bat ikus daiteke zendu berria den Joxemiel Bidador irakaslearen liburu honetan: BIDADOR, Joxemiel: *Euskara Iruñeko kazetaritzan (1910-1920) Testu antologia (I)*, Iruñeko Udala, Iruñea, 2001.

³ *Argia asterokoa*, 1931ko irailaren 27a, Etxalarko kronika.

gor Gurutze deunaren maitetasunean. Gar bizi ura ixtuz doa orañ eta iraungi urrana dago erritar askotxoren artean.

Bizixego dirau gure Urritziar⁴ begikoetan. Badakite ongi Gurutze deunaren laguntza billatzen eta ez doakio gaizki gure auzorik txoragarriari.

Gure aintziñekoen jarraile zintzoak izan gaitezten eta koka giten Gurutze deunaren Gerizgo altzuan.

Arburuak aipatzen duen ermita horrek Santa Krutz izena du eta Urritzokieta auzoan dago. XVI. mendean eraiki zen antzina akelarreak egiten omen ziren belati baten hurbilean. Bertzalde, ermita horretan ospatzen zen galbarioaren elizkizuna bizirik zegoen XX. mendearen erdialdean, gure zaharrek erran digutenez.

TESTUA

Erran bezala, testua Donostiako Koldo Mitxelena kulturunean dago altxatua, J.U. 9773 signatura kodearekin. 17 orrialde ditu eta galbarioaz gainera borts llogen debozioaren otoitz batzuk ere badakartza. Galbarioak 14 estazio ditu, eta estazio bakoitzak bere zenbakia, izenburua, oharrak (hurrengo estazioraino eman beharreko pauso kopurua eta abar), otoitzak eta hiru koplak ditu. Aitzinera jarraitu baino lehen, testu osoaren transkripzioa aldatuko dut hemen.

Oharra: Kako artean [] ageri diren letrak ez zeuden jatorrizko kopian, gehitu dira ustezko hutsuneak betetzeko. Zalantzazko irakurketa dagoen kasuetan orri azpiko oharren bidez adierazi da.

Jhs

Galbarioko Estazioak Echalarko Elizan aste santuan eta bertze okasiotan yendien artian egiten direnak.

Galbarioko bidea asitzean eguin bear den otoitza:

Nere Jesus, nere Jaun eta Jabe maitagarria, nere amorea gatik nekatu-rik eta afligiturik gurutzearen zur sendorrarekin galbarioko bide gogor luzean ibilli zarena: bide onetan nigatik eraman zenituen neke eta izerdien izenian ofrezitzen dizkitzut emen eguingo ditudan urratsak edo pausubak zure ondotik nabillela, eta zure bazterrik bagueko merezimentuekiñ bat eguiñik. Zembat zuri zor dizudan ezagaturik, nola zabilzan ikustera nator; eta dezakedan bezala penen damuz eta zure biotzeko amorearen amorez beterik, zere gurutzea eramaten laguntzera.

Indazu arren orretako, eta orretan dabilzena[i]⁵, Aita santubak beressi edo señalatu diezten indulgenziak irabazteko bear dudan indarra edo laguntza eta nik zuri eska diezazudan Elizak nai duben guziya.

⁴ Urritzokietar.

⁵ Testuak “dabilzena” dio, eta gainean, hitzaren bukaera aldatuz “la” idatzia dago, “dabilzela” zuzendu nahi balu bezala, baina gramatikalagoa da ematen dudana irakurketa, eta horrez gainera, Mikelestorenaren galbarioren hasieran hagitz perpaus antzekoa ageri da, honela baitio: “Aita Santuac devocio hau eguiten dutenai beressi, edo señalatu diezten. Indulgentiac irabatceco”.

1^a

Zeatu, eta ondoan emaiten zayo Jesus onari eriotzeko sentenziya

Aita Jaungoikuak maite zaituben eta obenik edo kulparik bague aurkitzen zaren Jesus ona, ikusten dut⁶ nola zauden nere amorez urturik, eta zabilzan ni galdu ez nadiyen⁷: bada uzten duzu zure buruba saltzera, ni erosteia gatik, lotzera ni bekatuen katez lotua gueldi ez nadiyen.

Nigmatik erabilli zinduzten etsai gaiztoak Jerusalemgo karrikak barrena gaichtakin edo gaizki-eguille baten guisa sokaz eta katez lotua.

Niri mansotasuna, berachtasuna, eta umiltasuna erakustea gatik, nai izandu zenduen obendunak bezala Anas, Kaifas, Pilatos eta Herodes juez gaichtoen aitzinean, bortz milla azote eta gueyagoz larrutu, buruan irurretan oguei eta amabi aranza zorrotzez zulatu eta Barrabasek baño tratu gaiztoagoa artu eta ondoan Pilatosen eskutik artu den eriotzeko sententziarik gogorrena.

Nere erran, eguin eta gaiztazkeriak dire zu orretara zaituztenak: damu det guziaz eta nai nuke barkatuak guerta ditezen gaurdanik; ala guertatzen bada zuri zorko dizut ori ere.

Yndazu arren ambat atseguin, baita munduban⁸, neke izerdi eta desore gucien artean zu maiz artzeko eta zerua irabazteko grazia ere.

Ala guerta dedilla, Jauna barkatu arren ene bekatu edo gaizki eguina.

Ondotik Aita guria eta Ave Maria eta bertze gurutzetan orobat.

Bidez zabilzanean eramainzu gogoan zembat neke-flakia eta izerdiarekin ibilliko zen, Jesus maitea zuk aisa daramazun bidean. Lembiziko lekutik bigarrenean oguei ta sei pausu⁹. Lanian arizarenean edo noiz nai kantatzeko edo gogoan erabiltzeko, eman zaitzu kopletan gurutze edo otoiz, bakoitzeko-misterioa.

1. Pilatosek du juzgatu
Gurutze baten¹⁰ mendian
Lapur batzuen erdian
Jesus bear dela itzatu.
2. Galdu guenduen bizia
Nai digu Jaunak erosi
Gañez doala zayo egosi
Bere iltzeko gutizia¹¹.
3. Naiz beiti zaitzu belauak
Biotza alena zazu gora
Nola ikustera eta norat
Guida eguiten duen Jaunak.

⁶ Kopia-egileak zuzendua, hasieran “zaitut” idatzia.

⁷ “galdu ez nadiyen galdua” dio testuak, baina kopiatzailearen bati itzuri zaion errakuntza dela iduri du.

⁸ Testuan “mundu lan” irakurtzen da baina gure irakurketa logikoagoa dela erranen nuke.

⁹ Testuak puntu honen jarraian “bidez zabilzarenean” dio, baina iduri du kopia-egilea lehengo perpaus bera kopiatzen abiatu zela eta gero, kontuan erori zelarik, bere horrela utzi zuela.

¹⁰ “bati” ere interpreta liteke. Iduri du honetan kopia-egileak errakuntza berri bat sortu duela edo ez zuela ongi ulertzen jatorrizko testua.

¹¹ Kopla honetako bertso-puntuak ilunak dira. Agian, “egosi” eta “gutizia” ordez “erori” eta “gurutzia” lirarteke logikoagoak, baina testuak ez du hala interpretatzeko bide ematen, nahiz eta bertzetan baino ilunagoa dela aitortu beharra dagoen. Baliteke jatorrizkoa ere iluna izatea eta kopia-egilea erdi-asmutzen aritu behar izatea.

2

Bigarren gurutzeko otoitza
Emen eman zioten gurutzea soñera

Jesus nere arim[ar]en Redentore eta ontasun bakarra; zeruaren eta munduaren bizi eguiyazkoa, azkenean zere etsai bizien eskuetara eta Juduen mendera zaitu Pilatos juez gaiztoak. ¡Artu dezu Juduen eskutik nere bekatuak eguin dizuten gurutze andi pisua gogoz edo borondate osoarekin zere soin minberean! Neke ori asko ez balitz bezala, aditzen dituzula zoaz zezen mindu edo leoi sutubak baño zure kontra aserrago dauden judu gogorren deadar, oyu, irri ta istak.

Nere amoreak orretara zaituben ezkerro, lagundu bear didazu nere gurutzea, niri ere eramateko aldia etorzen zaidanean, edo eman bear didazu ditiodan itz miñ edo gogorak, aserratu bague zure izenian eramateko edo artzeko grazia. Gaur guero naiz utz nazatela onra, edo oore eta ontasunik gabe, zure ondotik naidut ibilli: zurekin nekatzea izain da nere atse[n]dade eta atseguinik andiena.

Nere lan, enoyu¹² bear, eritasun eta neke guziak arintzeko ez dut berterik nai, baizik nola zu gurutzepean nekatu rik zoazen, ekusten dudala, niri ematen didazu[n] gurutzea eramatea.

Yndazu emen zugatik, nekatzeko eta zeruan zurekin nekerik gabe egoteko grazia. Jauna barkatu... Aita. Urruengoraño laroguei pauso.

1. Pilatos juez gaiztobenak
Jauna utzi du etsayetan
Juzgaturik gurutzera
Obenak balitu bezala.
2. Etsai saill andi bat biltzen
da Jaunaren penatzera
Baita ala atseguin artzera
Aundiyago bat urbiltzen.
3. Sentenziarekin batean
Gurutzea soñera emanik
Daramate penaturik
Nola lapur bat bidean.

3

Yrugarren gurutzeko otoitza
Emen erori zen lembiziko aldiyan

¡Ai Jesus! gure beguietako argui, arimaren sendatzalle, eta osasuna, lurrera zaitu gure bekatubak, soñera eman dizuten gurutze andi pisuak! Galbariora baño len ill zaitezen beldurrak, goratzen zaituzte judu gogorak: baño nola? lepoko soka eta buruko illetik tiraka eta oiñ zikiñekin ostikoak emanaz. ¡A, eta zembat zor dizudan Jesus maitea? Bada didazun naikeri andiak, edo bazterric bagueko amoreak arrerazi dizu orrenbat neke eta laburkeri ¡Nombait aundiak dire nere utseguinak garaiturik lurrera duteanean indarrez beterik dagoen Jangoikua!

Nere bekatuak, bekatu itsusiak, nola ote daukate nere arima, onela utzi dutenean nere Jangoikua! Jauna indazu arren orien zikintasuna eza-gutzeko bear dudan arguia; aguian ezagu[e]ra onek beartuko nau, da-

¹² Testuak “enoya” dio eta zuzendu egin da. Kopia-egilearen berrikuntza dela iduri du. “Enoyu” hitza hagitz autore gutik erabili izan dute euskarazko tradizio idatzian, eta Mendiburu da haietarik bat.

muzko urez biotza garbitzera, eta biotz garbiarekin ezin gueya[go]raño nai didan zure biotza maitatzera. Ala guerta dedilla emen nagoen gero, zu laudatzen gelditu bague zeruan. Jauna bar[katu..]. Aita...

Bertzeraño iru ogei pauso

1. Biotza gogorra duzuna
Beguiratzera orain nola
Jesusi doakion odola
Atoz laster atoz ona.
2. Ykusazu bekatoria
Nola zure kulpen kargak
Flakaturik bere indarrak
Lurrera duten Creadoria.
3. Ez du bildots otsoak
Ain gogotik autsikitzen
Nola Jesusi autsikitzen
Etsai zikiñak eta otsoak.

4

Laugarren gurutzeko otoitza
Emen batu zuen bere Birjina Ama

Aingueruen erregin garbia, bildots obenik baguekoaren Ama, ¿zertan zabilta emen barrena? Zer? billatzen duzu zere Semea? Ezagutu zenezake, ikusten bazenu? Orra gizon bat gurutzepean lertzen doana, eta berak dionaz, doa gure oben edo gaizkiak eriotza gogor baten iturrian garbitzera; ¿ori ote da bederatzi illez zure sabelean egondu zen Jaungoiko guizon eguiña? ori zere bularreko esne garbiarekin azi zenuena? ori ogei eta amairu urtez zurekin bizitu den, eta beti zuk nai zenuen guziya eraguin zenion zure seme on maitagarria? Bai, Ama maitea, ori bera da dena odol-durik, izerdiz eta loyez betea doan eta atsa ezin artu duen orisse da zure sabelean guizon eguiñ zen Jangoiko zure semea.

Nere zorrak, eta bere gain artu dituen[k], nere bekatuak orretara dute, oriek galdu ez nazaten, galtzera doa edo ematera darama¹³ bere bizia. Sentitzekoa da, ongui nai dion Ama batek, izandu den¹⁴ semerik onena orrela ikustea bañan orretara ez balitz, galduak guñen munduko guziak; galdu¹⁵ ez gaitzen eramazu arren eziñ gueiagoraño nai dizun seme orren izenean, orren neke izerdiak ematen dizuten zure biotzeko illuntasuna eta neke andi ori: eta guerta zakizkit bitarteko, bere neke eta penen artetik beguira diezadan eta didan nere gaizki edo kulpa berarekin beraren nekeak ez berritzeko grazia, baita zuk nigatik daramazun graziaren damu andi bat ere. Jauna... Aitaguria...

1. Amatan den oberena
Penez ya lertzen dabilla
Seme bakarr[ar]en billa
Bide guziek barrena.
2. Biotz on bat du ari emana
Ark osoki orain darama
Semea den lekura Ama
Biotz on ark beregana.

¹³ Testuak “daraman” dio, baina ez du iduri hor erlatibozko markarik behar duenik.

¹⁴ Errepikatua ageri da testuan: “izandu den den semerik onena”.

¹⁵ Hor “galduak” zioen testuak, gero bukaerako bi letrak zirrumarratu zituen kopia-egileak.

3. Atoz, bada, Ama una non den
 Non zure Seme bakarra
 Gurutzea soñian dakarra
 Galdez zu non ote zauden.

5

Bo[r]tz garren gurutzeko otoitza.
 Emendik aitzina lagundu zion Simon Zirineok

Nere Jaun, eta jabe maitagarria: indarrerik gabe bidean gueldi zaitez-
 zen bildurrez, billatu dizute¹⁶ gurutzean illa ikusi nai zaituzten etsayak Si-
 mon Zirineo deritzan lagun bat. ¡Zorioneko guizona zuri zure gurutze pi-
 suaren karga arintzeagatik, zure ondotik dabilena[!]

Gogotik lagunduko nikezu nik ere, urbill albanendi zugana; bañan
 kentzen naute zugandik eta bidaltzen urrun nere pekatu loiak.

Garbi nadin, indazu arren darizun odol edo izerdi orretarik chorta
 bat. Oraindaño ibilli banaiz eroa bezala Ynfernuko bide zikiñian; gaur-
 guero ibilli naidut erakusten didazun gurutzeko bidean. Nai dut, zure
 pausoari beguira nagokiela edozein naigabe, edo guertatzen den lan eta
 neke zure izenian artu edo eramane: Yndazu, asmo orretan nere egunak
 bukatzeko edo akabatzeko grazia... Jauna... Aita...

1. Jesus onak onembat gaitz
 Orain daduka berekiñ
 Bañan okin guziekin
 Da anitz etsai guztiz bekaitz.
2. Belaunak dabilkio ikara
 Gurutzeak dio lur yotzen
 Nor¹⁷ ez bazayo orain lotzen
 Ezin diteke Jauna [...]ari¹⁸.
3. Simon eman zayo lagun
 Gu bear gaitu onek iraike
 Jesusi nola yarraiki
 Ykusi eta ikas dezagun.

6

Seigarren gurutzeko otoitza
 Emen batu zuen Beronika

Zeruko edertasun, eta eguzki eder, Jesus ona, odol eta izerdiz loitua
 daramazu zure arpegui garbia eta Juduak gatik orrela iduki bearko zenuen
 ill artean, baña izandu zen Beronika zeritzan andre on bat, zutaz urrikal-
 durik urekin garbitu ekarri zizuna¹⁹. Badakit nere gaichtakeri eta utsegi-
 teak dirala itsustasun orretara zaituztenak. Damuz nago eta urrikiz zeren

¹⁶ Testuak “dizuten” dio, baina ez du iduri hor erlatibozkorik behar duenik.

¹⁷ Gure gaurko belarriek “inor” eskatuko lukete hor baina kopian ez dago dudarik “nor” paratzen duela, letra larriz emana baita lehenbiziko hizkia.

¹⁸ Pasarte honetan hondarreko hitza irakurtzen zaila da eta interpretatzen are zailago. Agian kopia-egi-
 leak berak ez zuen ongi irakurri jatorrizko bertsoa. “a” letraren aitzinean bertze letra bat dagoela iduri du
 (“d” bat agian?). Eta “i”-ren ondotik “z” bat ere egon daiteke. Berez “ikara” hitzarekin errima egin beharko
 luke, baina izan daiteke jatorrizkoan “ikara” ordez “ikari” agertzea, Etxalarko aldaera alegia. Bertze aukera
 bat da jatorrizko testuan, kopia-egileak erabili zuen testuan alegia, hor “gora” paratzea, eta ondorioz bertso
 lerroa “Ezin diteke Jauna gora” izatea. Bat etorriko litzateke zentzuz eta errimaz bederen.

¹⁹ Perpaus horrek eskas du “zapi bat” edo horrelako zerbait.

zurekiko orren gogorra izandu naizen, eta orain ezagutzen dudan bezala ezagutu banu nere erokeria, seguro da ez nubela eguin dizudan bekatuetarik bat eguiñen.

Yndazu arren, eguin ditudan guziak negarrez biotzetik kentzeko eta Zeruan zure aurpegui ederra ikusteko grazia. Jauna... Aita...

1. Biotz garbi baten yabe
Beronika da kausitzen
Orren gatik ezta aurkitzen
Jesus gana etorri gabe.
2. Jesusen aurpegui gaña
Guenez²⁰ dagola chukatzen
Or ongui zayo formatzen
Jaun orren aurpegi ordaña.
3. Andre berech[i] onek baitu
Bere biotza aiñ ederra
Nai du Jesusen eskerra
Gogo on batekin or zaitu.

7

Zazpi garren Guru[tze]ko otoitza
Emen erori zen bigarren aldian

Urrikari zaitudan, eta ezin gueiagoraño nigatik nekatzen zaren Jesus ona, orra non ikusten zaitudan bizkar, edo soñera eman dizuten Gurutzea Simon Zirineok laguntzen dizula ere, ezin jasoz eroria. Orain berritzen dira juduen ostiko, ille tiraka eta lengo erortze aldiko oyu, blasfemi eta ista guziak. A Jesus maitea! Yzaiñdezu bai orrelako tratua nere bekatuak dirauteño, bada bekatuak dire zure borrero gogorrenak. Bekatu edo borre-roak, nai nituzke nik oinpean lertu, lagun zaikizkit zure graziaren eskua-ekin, atera nadin lenbaitlen ditudan borrero edo bekatu gaichtuen atzaparratik, urbill nadin zugana eta damuz eta nigarrez bedere arin dezadan, edo goratzen lagundu azpian zaduzkan gurutze pisua: eta indazu zuk zere etsayen gaizkiak nere amorea gatik issillik daramazitzun bezala, egi-ten zaizkidan charkeriak zugatik aserratu bague eramateko grazia. Jauna, barkatu. Aita.

1. Bietan Jauna eroria
Zure kulpen kargarekin
Jesus²¹ zazu naiz yakin
Karga zein den andia.
2. Beti gora den zerua[k]
Orain ez daduka legue
Etsayen petik eregui
Goratzekotz Aingueruak.
3. Artu nai dubenak indar
Jauna alchatzeko lurretik
Eguin beza biotzetik
Bere kulpez zinki nigar.

²⁰ Hau da, “egunez (ehunez) dagoela xukatzen”.

²¹ “Jasan” edo “Jaso” beharko lukeela iduri du, edo aditzen bat bederen.

8

Zortzigarren guru[tze]ko otoitza
Mintzatzen zayo Jerusalengo Alabey

Lapur biyen artian lapurra bezala ezin geiagoraño nekearekin soñean daramazun zur orretan gurutzatua, eta itzez josia gelditu bear duzu[n] Jesus obenik baguea, beguira zayezu urrikari utsez nigarrez daramazkitzun Jerusalengo alaberi, damuz beterik zure ondotik orain gabiltzan ume tristiei. Zer duzu Jesus ona? Obendun iltzera doan baten gatik bezala ezdakigula zugatik nigar, nigar dakigula gurutze pean, eta illtzera zaramazten gure bekatu gaistoak gatik? Baita gogotik ere, Jesus maitea, baldin orretarako ematen badiguzu bear dugun grazia guzia. Yguzu arren, daramazun nekeagatik, eskatzen dizudan lagunza eta bear dudala dakizun guzia... Jauna... Aita...

1. Nai badezu ikasten ari
Jesuskristo zer diozun zor
Bide onetan ez eguin gor
Erraiten dizun²² itzari.
2. Jerusalengo alabarekin
Mintzatzen dago Jauna
Aditu naiz laguna
Boz erne biotzarekin.
3. Nere penaz damuturik
Zaudetenak negarretan
Obe duzue egon etan
Zeben kulpaz urrikarik.

9

Bederatzigar[ren] gu[rutze]ko otoitza
Erortzen da iru[garr]en aldian

Zure grazian egon nai duten guziak, bekatuan erori ez ditezen eskutik daduzkatzun Jesus Jaungoiko indartsua! Nombait andia da lenaren gañera nere bekatu berriak soñera eman dizuten karga edo sendotasuna, bada ikusten zaitut, gurutzea ezin jasoz irugarren aldian eroria. Alaber ikusten dut ezduzula guzia gatik nere kontra itz bat ateratzen. Asko eta geiagoetan; lauda [da]dilla zure pazienza.

Nombait zure neke ta nere charkerien artian ikustearekin erakusten didazu, nola artu bear ditudan guertatzen diren naigabeak.

A[r]ditzadan ongi eta issillik eramateko, indazu arren bear dudala dakizun eta falta zaidan dakizun guzia. Ala eskatzen dizut irugarren zure erortzearen edo erortzearekin artu zenuen miñ eta oñazearen izenian. Barkatu... Aita...

1. Bere arguia Biotz orri
Ezpazayo osoki iraungui
Beguira beza alez ongui
Jesus nola den erori.
2. Jaunak luryorik iru aldiz
Ya du ya biziya galdu.
Baldinba au sentitzen aldu
Kristabak biotz ukaldiz.

²² “dezun” dio testuak.

3. Jaikirik gurutzera naiz
Lagun galdea daduka
Zere laguntza ez iñoiz uka
Eske dagotzun oni maiz.

10^{en}

Amargarren gu[rutze]ko otoitza
Uzten dute soñeko gabe

Zerua izarrez eta lurra lorez estalzen duzun esku andiko Jesus maitea! Nork erranen are nolakoa izandu zen, Zuk izandu zenuen lotsa edo alketasuna, ikusi zenuenian larru gorrian eta soñekorik bague zere burua! Non aurki nezake nik, zuri emateko ongui legokizun soñeko bat! Nai bazenu bozik emanen nikezu nere errayak estaltzen dituen eta biotzaren gañian dudan larru²³ edo frinza! Ezagutzen dut ezdela gauza. Baña badakizu Zuk ere, ezdela nik gueyago nai, edo estimatzen dudanik.

Niri ere bekatuak kendu didaten Zuk eman zenidan graziaren soñeko ederra barkatzearekin Zuk niri nere bekatuak, graziaz janzia gueldituko naiz Zu estalia ikusteko dudan naia gatik, eskatzen dizut didazula arren dagokidan eta bear dudan graziaren soñeko eder au, baita Zuk daramazun alketasunaren damu andi bat ere. Jauna... Aita g[urua]...

1. Saion²⁴ borrero minduak
Jesus billuzi baitute
Odoletan utzi tiozte
Jaun onen zauri santuak.
2. Odolez aunitz iturri
Jesusi zaizkio atera
Eta guzietan bera
Pensa zenbat den²⁵ isuri.
3. Zauriyen zuluetaarik
Doaye Jesus odola ustuz
Biotza ere doako ustuz
Penaz guzia beterik.

11^{en}

Amekaga[rr]en gu[rutze]ko otoitza
Jesus gurutzian itzez josten dute

Anbat nekerekiñ ekarri duzun gurutzean itzez josten zaituzten Jesus Jaungoiko Gizon eguiazkoa! ¡Ah zein oatze gogorrean ezartzen zaituzten!

Nere gorputzaren atseguiñ gaichtoak dire gurutze orretan bi kolchoi edo zur zati gogorak nere bekatu zikiñak erdian artzen zaituzten maindi-reak. Nere oroitzapen likits, edo gogorazio loiak, zure buruko almoada, edo aranzazko koro gogortuak urratzen derozkitzuna. Zure esku eta oñetarako eguin dituzten nere oñak bere pauso luze makurrakin, eta asko gaizkirekin nere eskuak itze gogorak.

²³ "largu" dio testuak.

²⁴ Gaztelaniako "sayon" hitza dugu hor, hau da, f "verdugo que ejecutaba la pena de muerte" RAEren 1832ko hiztegiak dioenez.

²⁵ Testuak "det" dio.

Ykusirik Jesus maitea, ni naizela gurutze orretan orrenbat nekerekin zaduzkaten²⁶ borrero gogorra, damuz bete zait biotza eta nai nuke, eguin ditezen negarrezko iturri nere bi beguiak.

Yndazu nere kulpen eta Zure neke aundiaren penaz nigarrez urtzeko eta zure nekeak bekatu berritzez ez berritzeko grazia. Jauna, barkatu... Aita gurea.

1. Nola ladron bat urkatzen
Duten²⁷ sokaz urratzean
Jesus ala gurutzean
Oin eskuetan itzaten.
2. Jesusen junturetatik
Baitire ezurak iguitu
Dire erorzera abiatu
Golpe sendoz iziturik.
3. Yakin beza guizon lurak
O zein gaizki trataturik
Eta nola ikaraturik
Dauden Jesus zure ezurak.

12^{en}

Amabiga[r]ren gu[rutze]ko otoitza

Bizitza guzian nekez beterik ibilli zaren eta lenekoai gañez eraguin dioten neketan azkeneko orduan eman dizuten, Jesus maitagarria, arritzen nau ikusteak gurutze orretan zaudela doloretako retablo eguinik.

Ekusten ditut beren tokitik atereak zure bi besoak, eskuak eta oñak itzez urratuak, buru guzia elorri arantzez josia, gorputza galbai batek adiña zuloarekiñ, eta guerrietatik odola darizula, egarriz erretzen barrena eta mingaña erdi igartua, zure begui ederrak nigar eta odolez beteak eta erdiitsuak.

Baña guziak baño gueiago arritzen nau aditzeak denbora berian eskez zagozala zure Aitari barka ditzala orretara zaituzten nere bekatuak. Milla eta milla esker, Jesus ona, didazun amoreagatik, bada, orrenbat nekeren artean oroitzen za[re]n, emen dadukazun zere etsai aundienaz.

Yndazu nere bekatuen eta nigatik daramazkitzun neke eta eriotzaren damu andi bat, eta zure amoriari amorez erantzuteko grazia. Jauna barkatu... Aita...

1. Unat laster kristau otzak
Ylla dago gure erregue
Au iltzeko zer dan legue
Erran biar digu biotzak.
2. Kulparen goibel illunak
Dadukate Jesus illa
Ybillirik eken billa
Gure biotz obendunak.
3. Nola ote gaude bizirik
Bekatuene illunbetan
Yraungirik puntu or[r]etan
Gueure beguien arguiak.

²⁶ Euskara batuan “zauzkadan” erranen genuke.

²⁷ “Dutan” dio testuak.

Amairu ga[r]ren gur[utze]ko otoitza
Kentzen dute gurutzetik

Ezin geiagoraño Semiari nai zenion Birgiña, guziek baño geiago balio zuen Semea galdu duzun Ama, nork nai ezagu dezake andia izandu zela Semea ill eta lurrari emateko gurutzetik kendua ikusi zenuenian, artu zenuen pena eta sentimentuba, baño zein andia izandu zen zerorrek dakizu, nik dakidana da, Eskritura santuak dionez, itsasua beziñ, andia, gazia eta oñazekoa dela zure oraingo tristura eta sentimentua.

Ezda anitz, galdu duzu alabaña, edo ill zaitzu Jaungoikoa baña guchiago ez den Seme bat. Ay Ama! ni naiz zure Semiaren iltzallia! Lotsaz eta alkez beterik nator zure beguietara. Baña zer eguiñen dut? galdua naiz laguntzen ezpadidazu.

Lagun zaikizkit zuri eta zure Semeari eman derozkitzuten neken gañean damuz beterik bizi ta ill nadin. Bai arren daramazkitzun barreneko neke andi eta zere bakartasuna gatik... Jauna barkatu... Aita[...]

1. Ama Birjiñen penak
O zein anitz diren mindu
Bada onenganat eguindu
Gaitz duken zorrotzenak.
2. Biotza nasaitua du
Penen ezpata zorrotzez
Ezin daideke erran itzez
Zenbat min duben or artu.
3. Guk badugu amoriorik
Guazen billa gau eta egun
Erdizten al-dezakegun
Noiz onentzat konsuelorik.

Amalau ga[r]ren gu[rutze]ko otoitza
Ortizten edo enterratzen da Jesusen Gorputza

Obenik gabe eriotzaren eztarrian sartu ziñan, eta gure amoreagatik zere Gorputza lurrari eman zenion Jesus gure onguillea. Zer nai guk eguiña gatik, eztugu eguiñen zor dizugun erdirik ere, eta edozeiñ gauza eguiteko bear dugu zure laguntza eta eskua. Betor bada zure anima, Gorputza lurpean dadukazun artean nere animaren linbo edo bekatuen illunbera, illunbe onetarik atera nadin zure graziaren arguira.

Yndazu zure eriotze nekatuaren izenian eriotze onbat eguiteko grazia, eta lagun zakizkit bizi naizeño zure bizitza eta eriotza maiz gogoan ditudala, eguin ditzadan zerurako asko lan eta merezimentu, emen zu maitatzearen gañean eguin ditudan utsak, atera ditzadan aingueruen artean zure glorian... Jauna... Aita...

1. Nola guizon araguizkoa
Da lurrera sartzen
Ala dute emaiten
Soldado erregue Jangoikoa.
2. Arri sendor otz batekin
Dago lurrean estalia
Eguiaren iguzkia
Nola goibel andiekin.

3. Emen gogoz egon bedi
 Nor ere deitzen den kristau
 Yzan bedi egun edo gau
 Maiz oroitu gabe ez gueldi.

Zu bague Jesus
 Ez naiz deus
 Nik zaitut
 Maria
 Zu guia
 Zeruko zuzen bidia.

TESTUAREN EZAUGARRIAK

Testu honen ezaugarri dialektologikoak kontuan harturik, erraten ahal da testuan nagusi direla Nafarroako iparraldeko eta Gipuzkoako ekialdeko euskalkien ezaugarriak. Erran daiteke, orobat, Mendibururen hizkera Nafarroako eta Gipuzkoako elementuak konbinatuz sortutako hizkera literarioa dela. Hortaz, dialektologiari dagokionez, Galbarioaren testu honetan eta Mendibururen lanetan ageri diren hizkerak antzeko ezaugarriak dituzte. Badira Etxalarko galbarioan gipuzkerazko elementu batzuk ('eguingo', 'det', 'dezu', 'emanaz'...), arras marjinalak egia errateko, Mendibururen hizkeraren osagai arruntak direnak, baina nekez erabiliko lituzkeenak Bidasoaldeko egile batek, ez herrian egitekoa den elizkizun baten testuinguruan behinik behin. Hala ere, pentsa liteke elizkizunera Gipuzkoako erromesak ere etortzen zirela eta haiek aintzat harturik txertatu zirela gipuzkerazko elementu horiek. Agertu dira sarrera honetan Teodoro Arburuaren hitzak, erranez erromesak auzo herrietatik ere etortzen zirela Etxalarko elizkizunera. Auzo-herrizat har litezke, egoera zerbait bortxatuz, Gipuzkoako mugako herriak, baina hala ere, lanak ematen ditu sinesteak gipuzkoarrei begirune izateko sartu zirela gipuzkerazko elementu horiek testuan. Izan ere, Gipuzkoako mugako herriak (Irun, Hondarribia, Oiartzun) ez dira gipuzkeraz mintzo, eta gainera, erromesaldian joatekotan, Lezo hurbilago dute Etxalar baino. Ondorioz, gipuzkerazko elementu horien azalpen errazena da gipuzkeraz mintzo den edo gipuzkeraz ere mintzo den idazle batek idatzi zuela Etxalarko galbarioa.

Bertzalde, badira gure testuan Mendibururen lanetan ohikoak ez diren zenbait alderdi, Bidasoaldeko ezaugarritzat har ditzakegunak. Honela laburbilduko ditugu:

- Palatalizazioa. Adib.: “ya lertzen dabilla”, “ya du ya biziya galdu”, “guziya”, “sentenziya”, “eguiyazkoa”, “aundiyago”, “aldiyen”, “nadiyen”, “eznadiyen”, “biyen”, “zauriyen”.

Erran behar da era horretako palatalizazioa oraindik bizirik dagoela Bidasoaldeko hizkeran.

- U bokalaren labializazioa. Adib.: “zaituben”, “buruba”, “santuba”, “sutubak”, “munduban”, “dubenak”, “kristabak”, “sentimentuba”, “zenben”, “gaiztobenak”...

Fenomeno hori gaur egungo hizkeratik desagertua da, baina ongi dokumentaturik dago Bidasoaldean XVIII eta XIX. mendeetako zenbait testutan. Adibidez, Etxalarko apez Juan Bautista Sanzberrok XVIII. mendeko lehenbi-

ziko erdian idatzitako dotrina labur batean²⁸, honela idatzi zuen: “...padecituzuben Poncio Pilatosen podoriaren azpian...”, “...Lentabicoa siñestea Jungoyco bat podore gucia duebena baitan...”, “...Laugarrena sinestea, yauci cela infernetara, eta ateracituela santuven arimac...”, “Amar mandamentu-bac...”.

Bertzalde, Lesakan aldi batez aritu zen Etxeberri baztandarrak idatzitako sermoietan oraindik maizago ageri da alderdi hau. Izan ere, herriko hizkera-hurbildu nahi horretan, etxeokak baino etxeokago bihurtu zitzaigula idurri du. 1857an idatzitako testu horietan, honelakoak aurki daitezke²⁹: “Apostolubey”, “eracutsizazube”, “santubaren”, “vatayatubac”, eta abar.

Hortaz, labializazioaren ezaugarri horrek testuaren antzinatasuna berretsiko luke.

- Erakusleak jokatzean plural marka barnean gelditzen da: “eken” (=haien)

Hori ere Bidasoaldeko ezaugarria da.

- Alatiboa zenbaitetan t-ez bukatzen da: norat, unat...
- Adizki batzuen formak Bidasoaldekoak (izanak) dira: “dabilla”, “ditiodan” (=erraten ditudan), “dakarra”, utzi “tiozte” (=dizkiote), “dire”, “baitire”, “doaye”, urratzen “derozkitzuna” (=dizkizuna), zure semeari eman “derozkitzuten” (=dizkiotan) neken gañean...
- Zenbait aditzen erregimena ere Bidasoaldekoa da: “saltzera utzi”, “erortzera abiatu”...
- Hiztegiko zenbait elementu: akabatu, itzatu, ortzitu, beiti, autsiki, nigar, erraiten, baldinba, aunitz, iguitu, izitu, nasaitu, erditzen...

Alabaina, elementu horiek guziak, ugariak izanik ere, ez dira nagusi testuan, kolorea ematen diotenak baizik.

Tokiko alderdi horiek alde batera utzirik, aztertu nahi nuke, zabalago, testu honen estilo Mendiburutarra. Ez dut eginen azterketa xehekatua, baina aipatuko ditut testu honetako elementu gutti batzuk, begibistakoenak, hitz batez bete-betean Mendibururen estiloarekin bat datozenak. Hona hemen:

Sinonimoen konbinaketak

Euskalki desberdinetako irakurleei ulermena errazteari begira, sinonimoak tartekatzen dira testuan, hitza eta bere sinonimoa *edo* juntagailuaz loturik. Ez da Mendiburuk sortutako baliabidea baina bai berak anitzetan erabilia. Hona eka-rritako adibideak, gainera, hitzez hitz bat datoz galbarioaren testuan eta Mendibururen (edo kasuren batean Mikelestorenaren) testuetan ageri direnekin:

urratsak edo pausoak

Etxalarko galbarioa:

“...nigatik eraman zenituen neke eta izerdien izenian ofrezitzen dizkitzut emen eguingo ditudan **urratsak edo pausubak** zure ondotik nabillela...”.

Mendiburuk:

“Urrats jakiñak dira, bide orretako **urratsak edo pausuak**”

(1760, *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitzgai*, I, XXV).

²⁸ SATRUSTEGI, Jose M.: *Euskal Testu Zaharrak I*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1987, 78-79 or.

²⁹ Liburu berean, 247-261 or.

“Ez al naute galduko azkenean, orduko nere erakeriak, eta **urrats edo pausu** gaistoak?”

(1760, *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitzgai*, I, IV).

oben edo kulpa

Etxalarko galbarioa:

“Aita Jaungoikuak maite zaituben eta **obenik edo kulparik** bague aurkitzen zaren Jesus ona...”.

Mendiburu:

“Zeren **oben edo kulpa** larririk ez izana gatik, garaitzen edo eskura ekartzen ez dituzten pasio gaixtoak”

(1751, *Jesusen Bihotzaren Debozioa*, Bigarren Burua, II).

berexi edo señalatu

Etxalarko galbarioa:

“Indazu arren orretako, eta orretan dabilzenai, Aita santubak **beressi edo señalatu** diezten indulgenziak irabazteko bear dudan indarra...”.

Mikelestorena:

“...ta Aita Santuac devocio hau eguiten dutenai **beressi, edo señalatu** diezten. Indulgentiac irabatceco”

(ca. 1776, *Cerura nayduenac ardezaquean vide erraza*, 67. or.).

“Orretara zaituzte”-ren modukoak

Mendibururen baliabide ezaguna da: alatiboz deklinaturik dauden erakusle edo toki-erreferentziak aditz bihurtzen ditu -tu atzizkia gaineratu gabe. Hau da, gaur egun “hamarretan etxeratu dira” erranen genukeena Mendiburuk “hamarretan etxera dira” idatziko zukeen. Hona adibideak:

Etxalarko galbarioa:

“¡Ai Jesus! gure beguietako argui, arimaren sendatzalle, eta osasuna, **lurrera zaitu** gure bekatubak, soñera eman dizuten gurutze andi pisuak!”.

“Nere zorrak, eta bere gain artu dituenak, nere bekatuak **orretara dute**”.

“Badakit nere gaichtakeri eta utseguiteak dirala itsustasun **orretara zaituztenak**”.

Mendiburu:

“Guri ongi naiak, eta gure amoreak **orretara zaituzte** zu, gure Jesus maigarria?”

(1760, *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitzgai*, II, LI, B).

Geroaldiko aditz formak

Testuan ageri diren geroaldiko adizki bakanak ere Mendibururen estilokoak dira. Nik dakidala, ez dira inoiz Etxalarren usatuak –bai ordea Nafarroako hainbat tokitan eta, dirudienez, Oiartzunen, hau da, Mendibururen jaioterrian–. Etxalarko solaskeran halako aditz formetan sinkopa gertatzen dela erranen nuke: ‘**zanen da**, ‘**manen ttiot** eta abar erraten da.

Etxalarko galbarioa:

“A Jesus maitea! **Yzaiñdezu** bai orrelako tratua nere bekatuak dirauteño...”.

“zurekin nekatzea **izain da** nere atse[n]dade eta atseguinik andiena”.

Mendiburu:

“Bazekien an **izain** zituztela behar eztiran berriketa ta bazterretara begira egoteak”

(1751, *Jesusen Bihotzaren Debozioa*, Lenbiziko Burua, II).

“oriendako **izain** dira Bihotz onen amorezko ondasunak”

(1751, *Jesusen Bihotzaren Debozioa*, Lenbiziko Burua, III).

Hiztegiko ale batzuk

Badira hitz batzuk eta hitz konbinazio batzuk Mendiburuk erabili zituenak eta bertze idazleek ez dituztenak erabili edo ez proportzio berean behinik behin. Adibidez:

enoiu

Etxalarko galbarioa:

“Nere lan, **enoju** bear, eritasun eta neke guziak arintzeko ez dut bertzerik nai...”.

Mendiburu:

“eta gauz onak dakarren nekea bere gain ez artu naiez aisa uzten du hau ta gelditzen da lan onaren bide erdian; edo artara ta egiten badu, egiten du bere neke ta **enoju** andiarekin”

(1767-1782, *Igande eta festegunetarako irakurraldiak*, XXVIII, I).

“ta arte guzian ta beti arkituko da asperzen, neketzen ez dela ta **enoju** pitsik bage”

(1767-1782, *Igande eta festegunetarako irakurraldiak*, XXI, II).

bazterrik bageko

Etxalarko galbarioa:

“...eta zure **bazterrik bageko** merezimentuekiñ bat eguiñik...”.

“Bada didazun naikeri andiak, edo **bazterric bageko** amoreak arrerazi dizu orrenbat neke eta laburkeri...”.

Mendiburu:

“Ekusten du gure Jaungoikoaren jakiundeak edo Jaungoiko berak bere jaikiunde **bazterrik bageko** bere izatea”

(1760, *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitzgai*, I, IX, A).

“**Bazterrik bageko** gure Jaun au bera ote da, ni komuniatzen nazan aldietan nere baitan, edo nere bularrean arkitzen den Jaun andi maitagarria?”

(1760, *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitzgai*, III, LXXXVI).

Mikelestorena:

“Jaun bat gucia daquiena, ondasunez betea, **bazterric bageco** anditasuna duena...”

(ca 1776, *Cerura nayduenac ardezaquean vide erraza*, 22 or.).

leoi sutu

Etxalarko galbarioa:

“Neke ori asko ez balitz bezala, aditzen dituzula zoaz zezen mindu edo **leoi sutubak** baño zure kontra aserrago dauden judu gogorren deadar, oyu, irri ta istak”.

Mendiburu:

“Nor ote da adiraztez Daniel profeta, **leoi sutu**-gosekorrez ingurutua?”

(1760, *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitzgai*, III, LXXVI, B).

sokaz ta katez

Etxalarko galbarioa:

“Nigatik erabilli zinduzten etsai gaiztoak Jerusalemgo karririkak barrena gaichtakin edo gaizki-eguille baten guisa **sokaz eta katez** lotua”.

Mendiburu:

“zeren deabruak loturik dadukan bekatu beraren **sokaz ta katez** ta zeren bere bizi zikin izugarriak arritzen duen gauz [o]nik egiten ez uzteko...”

(1767-1782, *Igande eta festegunetarako irakurraldiak*, L, II).

neke-flakia

Etxalarko galbarioa:

“Bidez zabilzanean eramainzu gogoan zembat **neke-flakia** eta izerdiarekin ibilliko zen, Jesus maitea zuk aisa daramazun bidean”.

Mendiburu:

“bada zuen oben-kulpakgatik dira oraingo nere **neke-flakia**, odol-isurtzea, ta ezin-ibilli guzia...”

(1760, *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitzgai*, III, LXI, C).

judu gogor

Etxalarko galbarioa:

“Neke ori asko ez balitz bezala, aditzen dituzula zoaz zezen mindu edo leoi sutubak baño zure kontra aserrago dauden **judu gogorren** deadar, oyu, irri ta istak”.

“Galbariora baño len ill zaitezen beldurrak, goratzen zaituzte **judu gogorrak**: baño nola?”.

Mendiburu:

“Ekusi zuen an gure Jesus maitagarriak, **judu gogorren** artean bera, gizon egiñik, agertu bazen ere; ta **judu gogor** berei irur urtez bere Lege garbi zuzena itzez, predikuz, ta milagroez erakutsi ondoan...”

(1760, *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitzgai*, II, LI, C).

Horrelako lexiko aleak bertze gehiago ere badira, hala nola “amorearen amorez”, “neke-izerdi”, “txarkeria” eta abar. Orain artekoak aski izan daitezkeelakoan nago, hiztegi aldetik ere Etxalarko galbarioa Mendibururen estilora aski hurbiltzen dela frogatzeko.

Horiez guziez gainera, Etxalarko galbarioaren testuak baditu bertze ezaugarri batzuk Mendibururen estiloa gogora ekartzen dutenak, hala nola, erlatiboak bata bertzearekin kateatzeko edo enumeraziorako joera, adibidez. Bertzalde, galbarioko hitz lauzko zatian Mendibururengana garamatzaten ezaugarriak guti ez diren bezala, estazio bakoitzeko koplak kasuan ere argitu gabe gelditzen da Mendiburu bera ez ote den egilea. Izan ere, libururen batean edo bestean koplak idatzi zituen Mendiburuk, adibidez, San Frantzisko Xabierren bederatziruenerako. Kopla horien egiturak eta galbarioan ageri direnak badituzte antzekotasunak, bataren eta bertzearen idortasuna, bertzeak bertze. Hona erakusgarri batzuk:

Etxalarko galbarioa:

Etsai saill andi bat biltzen
da Jaunaren penatzera
Baita ala atseguin artzera
Aundiyago bat urbiltzen.

Sentenziarekin batean
Gurutzea soñera emanik
Daramate penaturik
Nola lapur bat bidean.

Mendiburu:

Deiez dago mundua,
negarrez ta gogotik:
San Xabier, Zerutik
iguzu zere eskua.
Santu bata baterako
besterako bestea:
San Xabier, zu zara
nai dutenen onerako.

(1751, *San Frantzisko Xabierren bederatzi-urrena*)

Halere, erran behar da kopletan ageri den hizkera Etxalarko hizkeratik hurbilago dagoela testuko gainerako zatietan ageri dena baino. Horrengatik, ez naiz ausartzen koplak horiek Mendibururi egozten. Kopletan ageri zaizkigun elementu anitz eta anitz ez dira Mendibururen baratzakoak; aitzitik, gorago identifikatu ditugun Etxalarko hizkeraren elementuak ugariagoak dira kopletan gainerako testu-zatietan baino. Hona kopletatik erauzitako adierazgarri batzuk:

Ezaugarri fonetikoak: penez **ya** lertzen dabilla, zeben kulpaz, kristabak, duben, gaiztobenak, **una** non den, baitire ezurak iguitu, **nigar**, okin guziekin...

Ezaugarri morfologikoak: **beiti**, **norat**, **unat**, ibillirik **eken** billa, soñan **dakarra**, **dabilla**, odoletan utzi **tiozte**, **doaye**, **dire** erortzera abiatu...

Aldaera lexikoak: Jesus bear dela **itzatu**, **autsikitzen**, **erraiten**, **baldinba**, **aunitz**, **iziturik**, biotza **nasaitua** du, **erdizten**...

Nire ustean, bada, koplak horiek Bidasoaldeko norbaitek idatziak dira, edo moldatuak bederen.

ONDORIO GISA

Eskuartean dugun testuaren estiloari eta zenbait ezaugarri fonetikorik begiraturik, zantzu argiak daude jatorrizko testua XVIII. mendean egina dela pentsatzeko. Estiloari dagokionez, lerroz lerro, behin eta berriz agertzen zaizkigu Mendiburu gogorazten dizkiguten ezaugarriak, eta hain zuzen Mendibururen estiloarekin bat ez datozen alderdiak berex aztertzean, Bidasoaldeko hainbat berezitasun identifikatu dira, eta horien artean aspaldi honetan bertako hizkeratik ezkutatu diren zenbait ezaugarri fonetiko ageri dira, testuaren antzinasuna berretsiz.

Bertzalde, testua XVIII. mendean idatzia izatea bat etorriko litzateke kalbarioaren jainerak Bidasoaldean duen antzinasunarekin.

Bi hitzetan errateko, Etxalarko galbarioa Bidasoaldeko euskararen eta tradizioen lekukoa da, eta, bere xumean, testu estimagarria dela iduritzen zait.

BIBLIOGRAFIA

- MENDIBURU, Sebastian: *Jesusen Bihotzaren debozioa*, Iruñea, Pedro Joseph Ezquerro, 1751.
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MendiburuDebozioa.htm>
 Ales Bengoetxearen bertsio elektronikoa
- MENDIBURU, Sebastian: *Jesusen amore-nekeei dagozten zenbait otoitzgai*, Tolosa, Eusebio Lopez, 1904 (1759-1760), Patrizio Antonio Orkaiztegiren edizioa. <http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MendiburuOtoitzI.htm>
 Josu Landaren bertsio elektronikoa
- MENDIBURU, Sebastian: *Igande eta festegunetarako irakurraldiak (1767-1782). Mendibururen idazlan argitaragabeak*, Euskaltzaindia, Bilbo, 1982, Patxi Altunaren edizioa.
<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/M/MendiburuIgande.htm>
- MIKELESTORENA, Jose Antonio, J: *Ceruna nayduenac ardezaquean, vide erraza*, Iruñea, Longás, ca 1776. http://www.vc.ehu.es/gordailua/Mikelestorena_1.htm. Ales Bengoetxearen bertsio elektronikoa
- SATRUSTEGI, Jose Maria: *Euskal Testu Zaharrak 1*, Euskaltzaindia, Iruñea, 1987.

LABURPENA

Etxalarko Galbarioa

Lan honetan Etxalarko Teodoro Arburua apezak XX. mendearen hastapenean bere eskuz kopiatutako testu baten transkripzioa eta azterketa egiten da. Galbarioko estazioen jaierari dagokio testua eta dirudienez jaiera horrek Bidasoaldean berebiziko garrantzia izan zuen aspaldian. Eskuizkribua XX. mendearen hasierakoa da baina testua aitzineko mendeetako ezaugarriak dituela agerian gelditzen da, lexikoa, berezitasun fonetikoak eta estiloa, oro har, kontuan hartuta. Artikuluan hainbat alderdi aztertzen dira, eta azterketa horren ondorioa da hastapeneko testuaren egilea XVIII. mendean bizi izan zen Sebastian Mendiburu idazle oparoa izan daitekeela.

Gako hitzak: Euskara zaharra, Etxalar, Gurutz bidea, Teodoro Arburua, Sebastian Mendiburu.

RESUMEN

Estaciones del Calvario de Etxalar

En el presente trabajo se transcribe y analiza una copia manuscrita realizada por el sacerdote de Etxalar Teodoro Arburua al comienzo del siglo XX. El texto se refiere a la devoción de las Estaciones del Calvario, que en otro tiempo parece que tuvo gran importancia en el Bidasoa. Aunque el manuscrito data de comienzos del siglo XX, es evidente que el texto presenta características de siglos anteriores, en lo que se refiere al léxico, particularidades fonéticas y estilo en general. En el artículo se analizan diferentes aspectos para concluir que muy posiblemente el autor del texto original sea el fecundo escritor Sebastián Mendiburu, que vivió en el siglo XVIII.

Palabras clave: Euskera antiguo, Etxalar, estaciones del calvario, Teodoro Arburua, Sebastián Mendiburu.

RÉSUMÉ

Stations du Calvaire d'Etxalar

Nous effectuons ici la transcription et l'analyse d'une copie manuscrite du début du XX^e siècle, attribuée au prêtre d'Etxalar Teodoro Arburua. Le texte fait allusion à la dévotion des Stations du Calvaire, qui autrefois aurait eu une grande importance au Bidassoa. Bien que le manuscrit date du début du XX^e siècle, il est évident que le texte a des caractéristiques des siècles précédents, pour ce qui est du lexique, des particularités phonétiques et du style en général. Dans cet article nous analysons les différents aspects avant de conclure que l'auteur du texte original est, probablement, le très fécond écrivain du XVIII^e siècle, Sebastián Mendiburu.

Mots clé: Euskera ancien, Etxalar, stations du calvaire, Teodoro Arburua, Sebastián Mendiburu.

ABSTRACT

Stations of the Cross from Etxalar

The present article transcribes and analyses a handwritten copy made by the Etxalar priest Teodoro Arburua at the beginning of the XX century. The text refers to the devotion of the Stations of the Cross, which would seem to have been of great importance in the Bidasoa area in days gone by. Although the manuscript dates from the beginning of the XX century, it is clear that the text contains characteristics from previous centuries in terms of lexicon, phonetic peculiarities and general style. The article analyses a range of aspects before concluding that the original text was possibly written by the prolific author Sebastián Mendiburu, who lived in the XVIII century.

Key words: Old Basque, Etxalar, stations of the cross, Teodoro Arburua, Sebastián Mendiburu